

Gomendatutako liburua:

-Verdier, Aurélie. "L'ABCdaire de Dada". Flammarion. Paris. 2005.

DADAISMOA

Apurtze mugimendua dugu Dadaismoa. Lehen Mundu Gerra bitartean garatu zen Suitzan, herrialde neutrala zena. Giza balioen haustura adierazi zuen eta antiartearen aldeko manifestuak bultzatu zituen.

Dada mugimendua 1915-1922 bitartean garatu zen. Dada izena zorizkoa izan zen, Larousse hiztegiaren orriak irekitzean aurkitu baitzen izen hori. Baina ez dago esanahi argi bat, hobeto esanda, ezerezaren esanahia ematen du. Zentzu horretan, ezerezari buruzko espekulazioa gertatu zen, batez ere, filosofia gai gisa hartuta. Jadanik aztertutako filosofia zen hura, Aristoteles-ek eta Kant-ek ikertutakoa, hain zuzen ere. Geroago beste teorigile batzuek filosofia horretan sakondu zuten. Aipa ditzakegu Bergson, Heidegger eta Sartre. Europan gertatzen ari zen sarraski ikaragarriak eraginda, dadaren hasierako izpiritua nihilista izan zen. Protestarako bide anitz aukeratu zituzten, baina beti bi helburu zehatzekin: konbentzio artistikoak apurtu eta ideologia burgesaren aurkako borroka.

Dada mugimenduari dagokionez, antiarte jarrerak nagusitasuna izan zuen arren, bere bilakaeran, artearen historian kontutan hartu beharreko mugimendua suposatu zuen. Cabaret Voltaire-n, Zurich-eko biltoki batean, dada mugimenduaren doktrinak bultzatu ziren. Cabaret Voltaire-n garaiko arauekin ados ez zeuden intelektualak eta artistak, gehienbat errefuxiatuak, gerrateak sortutako giza balioen krisiari aurre egiteko bildu ziren. Dada hitza eta kontzeptua bera, Suitzan sortu zen 1916.ean Cabaret Voltair-ean bertan. Hugo Ball eta E. Hennings (bere emaztea) kabareteko zuzendariak zirela, T.Tzara poeta errumaniar gaztea, Janco eta Hans Arp laster hurbildu zitzaizkien. Berehala hasi ziren Cabaret Voltaire izeneko aldizkaria argitaratzen. Kabaretaren beste ezaugarri garrantzitsu bat internazionalismoa zen.

Aretoaren ateak 1916. urtean zabaldu zituzten, Dada artearen lehen agerpena ohorez aurkeztuz. Fundatzaileak Hans Arp, Tristan Tzara, Hugo Ball eta R. Huelsenbeck izan ziren. Ikuskizun zirikatzaileak aurkeztu zituzten eta geroxeago "Cabaret Voltaire" izeneko liburuxka argitaratu zuten. Haien agerpenak zaratsatuak izan ziren eta azkenean mutur joka bukatu zuten. 1919. ean, Berlin, Kolonia, Hannover eta Pariseko jarraitzaileak agertu ziren. Haien ideiak beste lurraldeetara zabaldu ziren eta hasierako absurduaren ideiak ohiko balioak suntsitzeko eskola eragile bihurtu ziren. Jarrera kontestatario hori XVII. mendean ere ikusia zen, Bracelli-ren Kapritxoetan eta Larmessin-en jantzietan, hain zuzen ere. Talde dadaistaren helburua subertsioa zen, mugimenduaren hastapenetik hasi eta pixkanaka arlo guztietara zabaldu zena.

Voltaire Cabaret-a Dada mugimenduarekin harremanetan jarri zen eta sortzeko eta ikasteko lantegi handia bilakatu zen. Han, dadaismoaren lehendabiziko taldea antolatu zen. Hasierako taldea oso itxia bazen ere, gerora, 1917.an, Dada Galeria osoa antolatu zen izaera erabat desberdineko artistak bilduz: Feininger, Klee, Ernst, Chirico, Modigliani eta abar.

Kubismoarekiko hainbat harreman antzeman ziren, aurreko mugimendua aitzindari gisa ulertuta. Amankomuneko ezaugarri nabariena teknikoa zen, hots, "papiers collés"en

erabilera. Lotura hori baino ez da ematen bien artean. Dakigunez, kubismoa mugimendu arrazionala izan zen eta ez zuen errealitatea suntsitu nahi, ezta objektuari porrotarik eragin ere. Mugimendu horren helburu bakarra errealitatea ordenatzea eta inpresionismoa desegitea zen.

Dada mugimenduaren ideiak era honetara labur daitezke: garaiko mugimendu artistikoen errepresentazioaren kontzeptuarekiko iraultza piztu nahi izan zuten, baina oinarritzkoak ziren bi gauza ahaztu gabe: artearen izaera eta haren harremanak jendearekiko; arteari buruzko inposatutako arauak (teknikak, materialak, gaiak) desagertu ziren, hori zela eta *antiarte* hitza agertu zen, artea desmitifikatzeko helburuarekin. Ildo honekin jarraituz, hurrengo esaldi zirikatzaileak aipa daitezke: Francis Picabiak esana: “el arte es un producto farmacéutico para imbéciles” “El cubismo es una catedral de mierda”, “el cubismo construye una catedral de foie-gras artístico. El expresionismo envenena las sardinas artísticas... el futurismo quiere ascender en un lirismo ascensor artístico”; Schwitters-en esaldia: “Todo lo que escupe el artista es arte”; Cravan-ek hauxe esan zuen: “La pintura es andar, correr, dormir, hacer el amor y las necesidades”.

Dada mugimenduaren aitzindaria eta artista nagusia Marcel Duchamp izan zen, estetikaren kontrako pankarta eta ukapen artistikoa eragin zituen. 1915ean, “ready made”-ak ezagutzera eman zituen. Zurich-en zein New York-en azaldutako jarrera parekoa izan zen. Marcel Duchamp-ek *antiarte* hitza asmatu zuen, kultura ofizialak artearen eta bizitzaren artean ezarritako oztopoa gainditu nahian. Antiartearen bitartez zera erakutsi nahi zuen: eguneroko bizitzako objektu eta ekintzak arte bihur zitezkeela, ondorioz, handik aurrera dena bihur zitekeen arte. Ohiko arte kontzeptuak deuseztatzen saiatu ziren. Dadaismoaren beste ezaugarri nabarmen bat arte-merkatuaren aurkako iharduera izan zen. Dadaista guztientzako premiazko beste helburu bat ohiko arte-objektuak trufatzea zen. Horrexegatik, testuinguru horren barnean ulertu behar litezke Duchamp-en ekintzak. Aipa ditzagun, esaterako, Giocondari biboteak pintatzea edota Cravan-ek, hitzaldi batean, pintura-kutxa bat jendeari jaurtitzea.

Ildo beretik, artearen ohiko arauak gainditzeko gogo hori 20.eko hamarkadan lehertu zen, dadaismoa sortzearekin batera. Dena den, oso garrantzitsua bilakatu zen 1919. urtea. Urte horretan Duchamp-ek Giocondaren koloretako kopia txiki bati bibote eta kokospekoa pintatu zizkion. Ekintza hori iharduera dadaistaren adibide eta laburdura gisa ezagutzen da.

Dada mugimenduak 291 aldizkari sortu zituen eta han izan ziren lankide Man Ray, Picabia eta Arensberg. 1917an, 391 aldizkari sortu zituzten. Urte horretan Dadaren bi zenbaki argitaratu ziren Tzara-ren zuzendaritzapean. 1922. urtean, Pariseko Montaigne Galerian, “Dada Areto”-a zabaldu zen, baina jada 1919.ean Tzara “Littérature” taldean ari zen parte hartzen, Breton, Aragon, Soupault, Eluard, Péret eta Cravan-ekin.

Dada mugimendua Europan zehar hedatu zen, baina gehienbat Suitzan, Amerikan, Frantzia eta Alemanian sortu ziren talde garrantzitsuenak. Huelsenbeck-ek Berlingo taldea sortu zuen 1917.ean eta 1920.ean desegin zen. Talde hau politizatuena izan zen. Partaide gehienak Alemaniako alderdi Sozialdemokratiko-aren militanteak ziren. George Grosz aipatzekoa da, alemaniar burgesia eta militarren marrazkilari adierazgarriena eta mingarriena. Hannover hirian Kurt Schwitters izan zen mugimenduaren zuzendaria eta hark “collages”etan, *merz* izeneko eskultura lanean,

objektu gutxietsiak eta hondakinak erabili zituen. Alemanian agertu zen dada mugimendua txit politikoa izan zen, hori zela eta, kaleko ekintzak proposatu zituzten. Adibidez, arte plastikoetan jarrera hori oso garbi ikusten da: artegatasun politikorako erabilitako fotomuntaiak; ikusleak nahaspilatzekeo koadro zirikatzaileak; antzerkia, agiri eta olerkien irakurketa publikoa; aldizkari, liburuxka, panfleto ugari eta era guztietako inpresoen argitarapenak. Ekintza guzti horiek dadaismoak jendearekiko komunikazio zuzenari emandako garrantziaren froga dira.

Parisen ere dada mugimendua eskandalagarria izan zen, baina ez politikaren arloan, berlinekoa izan zen bezalakoa, baizik eta intelektualen munduan. Dena dela, prestatutako ekintzak gutxienek izan ziren, koadroak eta diseinuak baino ez zituzten erakutsi, olerkiak irakurri, antzeztu eta musika jo. Aldizkari eta argitarapenak ez zituen jende askorik eskuratzen. Pariseko dadaistek, Tristan Tzara, L. Aragon, Ph. Soupault, A. Breton eta beste batzuek, 1924.ean dadaismoa agortuta zegoela pentsatuz, taldea banatzea erabaki zuten. Bretonek urte horretan argitaratu zuen Surrealismoaren Manifestua eta taldeko gehienak mugimendu berrira kideatu ziren.

Estatu Batuetan, New York-en batik bat, beste dadaismo talde bat sortu zen. Stieglitz zen horren bultzatzailea eta partaideen artean Picabia, Duchamp eta Man Ray zeuden. New York-eko taldea artearen izaeraz arduratzen zen, baina politikan sartu gabe. Jarrera koherentetzat har daiteke, ingurune politiko eta ekonomikoa kontuan izanik.

Dadaismoak ideia bat ezarri zuen beste guztien gainetik: programa eza. Jarrera hori artearen prozesuan gertatu ohi zen eta artearentzako askatasun gehiago lortu nahi zuten. Dena dela, artista bakoitzak bere metodoak eta bere lan egiteko joerak zituen. Adibidez, Hugo Ball, mistikoa eta bakartia, artea utzita meditazio eta filosofian sartu zen; A. Cravan zirikatzaile amorratua zen eta artearen mesprezatzaile; Duchamp zinismo intelektualez betetzen zituen bere artelanak. Hain pertsona ezberdinak batu ziren, ezen dadak ideia multzo handia bildu baitzuen.

Dadaismoak sorrarazitako ideologiaren iraultzaz gainera, teknika, material eta adierazpide berriak ere eman ziren. Dadaisten obra gutxi geratu zaigu. Asko galdu edota apurtu egin ziren, denbora laburrean irauteko eginak baitziren. Merkatuaren aurkako borrokaren aldi berri bat hasia zen, obra galkorrak eginez, hau da, desagertzeko sortuak. Eta literatura arloan antzeko estrategiak erabili zituzten olerkariak. Adibidez, Soupault-ek argitaratzerik ez zegoen poesia bat idatzi zuen.

GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

MARCEL DUCHAMP

- “Beira Handia” edo “La casada desnudada por sus solteros, incluso” (1913-1923)
- “Bizikleta-gurpila” (1913)
- “Botilak jartzeko tresna” edo “Botila-lehorgailua” edo “kirikinoa” (1914)
- “A cuenta del brazo partido” (1915)
- “Tolesgarri..... bidaian” (1916)
- “Apolinére Enameled” (1916-1917)
- “Iturria” (1917)
- “L.H.O.O.Q.” (1919)
- “Pariseko airea” (1919)

- “Kapelak jartzeko esekigailua” (1917)
- “Kutxa-maleta” (1936-1941)

FRANCIS PICABIA

- “De Zayas! De Zayas!” (1915)
- “Lausana abstraktua” (1918)
- “Relâche-rentzat kartela” (1924)
- “Begi kakodilatoa” (1921)
- “Poxpolu emakumea II” (1925)
- “Hiru Grazia” (1924-1927)

KURT SCHWITTERS

- “Merz 158” (1920)
- “Merz” (1920)
- “Eraikuntza Merz” (1921)
- “Merz Koadro 46^a” (1921)
- “Hannover-reko MerzBau” (1933)